



DEIEN PLATAFORMA

Iruñeko Udalak onlineko sistema telematiko bat ezarri du, aldi baterako kontratazioak egiteko deietan, lanpostuak modu arinagoan betetzeko xedez eta egungo inguruabar aldakorretara egokitzeko beharrezkoa den digitalizazio-prozesuarekin jarraitze aldera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko maiatzaren 3an, Udalaren ordezkartzaren eta gehiengo sindikalaren artean lortutako hitzarmena onetsi zuen, ordura arte indarrean zegoen dei-prozedura aldatzeko, bi xede harturik, disfuntzioak sortzen zituzten prozeduraren alderdiak aldatzeko eta, aldi berean, plataforma berriaren beharretara egokitzeko.

INTERFAZ BERRIA

Deien plataformara Udalaren www.pamplona.es webgunearen bidez sar daiteke. Interfaz berri bat sortu da, lan-eskaintzen inguruko alderdi guztiak biltzen dituen, honako atal hauek osatua:

- LAN PUBLIKOA.
 - o LAN PUBLIKOKO DEIALDIAK. Bertan kontsultatu dezakezu zein lan-aukeratan ematen ahal duzun izena.
 - o LAN-ESKAINZA PUBLIKOA Hemen, Iruñeko Udalaren indarreko LEPak dituzu eskuragarri.
- ZERRENDA BATEAN NAGO.
 - o DEI BATI ERANTZUN / ZURE PROFILA ALDATU. Zure datuak kudeatzen ahalko dituzu Iruñeko Udalaren kontratazio-zerrenda batean bazaude, eta jaso dituzun deiei erantzun.
 - o PROZEDURA ETA ZERRENDAK.
 - DEIEN PROZEDURA. Sarbidea izanen duzu Iruñeko Udaleko eta haren Erakunde Autonomoetako langileak administrazio araubidean kontratatzea arautzen duen prozedurara.
 - KONTRATAZIO-ZERRENDAK. Kontratazio-zerrendetan duzun postua kontsultatzen ahalko duzu.

PLATAFORMAREN ERABILERA

Kontratazio bat egin behar denean, Langileria-departamentuak lan-eskaintza bat sortuko du eta dei bat egiteari ekinen dio, kontratatzeko libre dauden izangaiantzat. Deia taldeka eginen da, eta behar beste dei eginen dira, dagoen beharra bete arte, indarreko arauak ezartzen duten lehentasun-ordenaren arabera.

HASIERA

Langileria-departamentuak eskaintza bat sortuko du eta dei bat abiatuko du. Izangaiek SMS bat jasoko dute haiekin harremanetan jartzen diren **lehen aldian**, eta horrek webgune batera bideratuko ditu, erregistroa egiteko:



ERREGISTROA

1. SMS bat jasoko duzu, webgunera bideratuko zaituena. Bertan, aukera hau topatuko duzu: DEI BATI ERANTZUN / ZURE PROFILA ALDATU. Udalaren webgunetik ere sar zaitezke.
2. Bide batzuk daude sartzeko: aplikazioaren bidez, erabilera bakarreko kodeen bidez edo herritar karpeta erabilita.
3. “Aplikazioaren bidez” aukera hautatuz gero, Lan-poltsako Deiei Erantzuteko Sistemaren orrira iritsiko zara.

Sistema de Respuesta a Llamamientos de la Bolsa de trabajo

➔ Identificación

*Datos obligatorios

Identificación

*Tipo de documento:

*Documento de identidad:

*Teléfono SMS:

Al pulsar en el botón "Siguiente", se le va a enviar una clave OTP o "código de acceso de un solo uso" a la dirección de correo electrónico asociada a su expediente en el Sistema de Respuesta a Llamamientos de la Bolsa de trabajo

¿Es la primera vez que accede al Sistema de Respuesta a Llamamientos de la Bolsa de Trabajo?

[Regístrate](#)

Si lo prefiere, puede acceder con certificado digital o Cl@ve sin necesidad de registrarse

4. Sartzen zaren lehen aldian, beharrezkoa da zu erregistratzea. Horretarako, “Erregistratu” atalean sartu.

5. Pantaila bat agertuko zaizu; bertan, nortasun-agiria eta baliozko helbide elektronikoa bat txertatu. “Hurrengo” sakatutakoan, bi aktibazio-kode jasoko dituzu, bat SMS bidez eta bestea eman duzun helbide elektronikoa.

➤ **Gogoan izan sortzen diren kode guztiak erabilera bakarrekoak direla eta sortzetik 15 minutura iraungitzen direla.**

6. Jasotako kodeak sartu beharko dituzu, eta baliozkotu. Une horretatik aurrera sisteman erregistraturik egonen zara eta ez duzu erregistroa errepikatu beharrik izanen.

SAIOA HASTEKO

7. Identifikazio-orrira bueltatuko zara; gero, zure nortasun-agiria eta telefonoa erregistratu beharko dituzu, eta “hurrengo” botoia sakatu. Sistemak identifikazio-kode bat sortuko du; zuk posta elektronikoa bidez jasoko duzu kodea eta saioari hasiera emanen diozu.

➤ **Behin erregistraturik, jakinarazpenak beti posta elektronikoa bidez egingen dira.**



8. Pantaila berri bat agertuko zaizu, zure datu pertsonalekin eta zenbait atalekin:

- Editatu datu pertsonalak.** Aldatzen ahalko dituzu telefona eta e-mail helbidea, eta jakinarazpena zein hizkuntzatan jaso nahi duzun aukeratu.
- Eskaintza aktiboak.** Erantzuteko fasean dauden eskaintzak dira; 9. puntuari zehaztasun handiagoz daude azalduta.
- Eskaintzen historia.** Bertan jaso eta jada eskuragarri ez dauden eskaintzak agertzen dira. Eskaintzaren egoera irekita izanen da hura amaitzen ez den bitartean. Izangaien lehen multzoari dei eginda ez bada lan-eskaintza betetzen, beste dei bat egingen da, eta eskaintza irekita dagoela ikusiko duzue pantailan. Gogoan edukitzen ahalko dituzu eskaintzaren datuak eta zuk emandako erantzuna.

Sistema de Respuesta a Llamamientos de la Bolsa de trabajo

➔ Pantalla de inicio

Disponible respuesta hasta	Puesto de trabajo	Situación
16/06/2021 12:40	EXPERTOS EN DEMOS (60002021005)	Pendiente de respuesta
(Total: 1)		

Historial de ofertas
No hay datos

➔ Información de la oferta

Datos de la oferta

Área: Recursos Humanos
Puesto de trabajo: EXPERTOS EN DEMOS
Duración: Contrato largo / Kontratu luzea
% jornada: 100
Nivel: 1
Número de plazas: 1
Fecha inicio llamamiento: 16/06/2021 12:21
Fecha fin llamamiento: 16/06/2021 12:40

Respuesta
Pendiente de respuesta

Cambiar estado
*Respuesta:

DEI BATI ERANTZUTEA.

9. Dei bati erantzuteko, **“Eskaintza aktiboak”** aukera erabili behar duzu. Bertan topatuko duzu lanpostua zer egun eta ordu arte egonen den eskuragarri, zer lanpostu den eta egoera. Erantzuteko, eskaintzan sartu behar duzu; hurrengo pantailan hauek ikusten ahalko dituzu: eskaintzako kontratuaren gaineko datuak, zure erantzunaren egoera eta aukera bat, zure erantzunaren **egoera aldatzen** utziko dizuna eskaintza eskuragarri dagoen bitartean. Hona aukera posibleak:
- Onarpena.
 - Justifikatutako ezespena.
 - Justifikatu gabeko ezespena.

10. Onartzen baduzu, zure erantzuna automatikoki grabatuko da.



11. Justifikatutako ezespena egiteko, zure ezespeneri dagokion egoera aukeratu beharko duzu zerrenda batetik (indarreko prozedurarekin bat baliozko zioak jasotzen ditu), eta hori egiaztatzeko ziurtagiria erantsi.

- * Ziurtagiria unean bertan eransten ahal duzu, edo geroago.
- * Nolanahi ere, zure erantzuna grabaturik geratuko da ezespenei justifikatu gisara.
- * Ziurtagiria geroago eranstea erabakiz gero, zure egoera "justifikatutako ezespenei, justifikazioaren zain" izanen da, eta hura aurkezteko mugaeguna adieraziko zaizu. Epea egoera justifikatu gabe iraganez gero, ezespenei ez-justifikatutzat joko da.
- * Agiri bat erantsiz gero, hori giza-baliabideetako langileek baliozkotzeko zain geratuko da, izan ere, hautatutako justifikaziorako baliozkoa dela egiaztatuko dute.
- * Halaber, oharrak egiteko atal bat topatuko duzu bertan, inguruabar garrantzitsuren baten berri eman behar izanez gero.

➤ **Gogoan izan PDF, JPG eta 5 Mb bitarteko PNG formatuko agiriak eransten ahal dituzula.**

12. Justifikatu gabeko ezespenei eginez gero, sistemak galdetuko dizu zerrendan jarraitu nahi duzun. Zerrenda utzi nahi baduzu, baimena eman beharko diozu Udalari bertatik kentzeko.

➤ **Gogoan izan zure egoeran egiten duzun aldaketa oro zuzenean islatuko dela plataforman eta unean bertan igorriko dela Giza Baliabideetara, betiere baliozkoa delarik ezarritako epearen barruan egin duzun azken aldaketa.**

13. Egoeraren atala beti gorri agertuko da geroko prozesu bat behar duen erantzuna eman den kasu orotan. Zure erantzuna onarpena bada, ez legoke ez kein agiririk eransteke; hortaz, atala ez legoke gorri.

ESKAINTZAREN AMAIERA

14. Erantzuteko epea amaituta, Giza Baliabideetako langileek izangaien erantzunak aztertuko dituzte, eta **lanpostua esleituko zaio dei-ordenaren arabera dagokion pertsonari**. Une horretan itxiko da eskaintza eta izangaiek ikusiko dute eskaintzaren egoera itxita dagoela. Giza Baliabideetakoak

harremanetan jarriko dira hautatutako pertsonarekin, kontratua egiteko behar den dokumentazioa eskatzeko. Ez badu inork eskaintza onartzen, beste dei bat sortuko da eskaintzarako eta egoerak irekita egoten jarraituko du.

Sistema de Respuesta a Llamamientos de la Bolsa de trabajo

➔ Pantalla de inicio

ROCIO GARCIA MARTINEZ
D.N.I. / N.I.F.: 123456773
[Cerrar sesión](#)
[Editar datos personales](#)

Ofertas activas		
Disponible respuesta hasta	Puesto de trabajo	Situación
16/06/2021 12:40	EXPERTOS EN DEMOS (60002021005)	Rechazo justificado pendiente de justificación (21/06/2021 12:21)
(Total: 1)		

Historial de ofertas		
Disponible respuesta hasta	Puesto de trabajo	Situación
16/06/2021 12:32	EXPERTOS EN DEMOS (60002021006)	Aceptado
(Total: 1)		